

PARTNER TEKNOLOGIKO BATEN BILA ZABILTZA ETORKIZUNEKO ERRONKEI AURRE EGITEKO?

IDEKOren kide izatera gonbidatzen zaitugu, **enpresa kolaboratzaile** gisa, IDEKOrekin etengabeko lankidetzan aritzeko konpromiso bat finkatuz inolako lotura sozietariorik izan gabe. Zure partner teknologikoa izango gara, egungo eta etorkizuneko beharretan lagunduko dizuna, bai eta zure **I+G+b planaren** estrategian ere.

ZERGATIK IDEKO?

IDEKO 30 urte baino gehiagoko **zentro teknologikoa** da, **fabrikazio aurreratuan** espezializatua, industriarekiko hurbila eta enpresen garapen eta teknologia transferentzia zerbitzuetan esperientzia duena. Gure jardueran sartzen dira aukerak identifikatzea eta aztertzea, produktu, negozio lerro eta produkzio prozesuak diseinatzea eta garatzea, eta arazoak konpontzea, hainbat zerbitzu teknologiko eskainiz, horien artean aholkularitza teknikoa edo ekipamenduan oinarritutako zerbitzuak.

ENPRESA KOLABORATZAILEENTZAKO ABANTAILAK

01. LAGUNTZA ESTRATEGIAN

- Etengabeko aholkularitza teknologikoa.
- Laguntza zure I+G+b planaren diseinuan, eta estrategia teknologikoen lerrotzetan.
- Laguntza I+G+b lankidetzan proiektuak identifikatzen.
- Lehenasuneko sarbide pertsonalizatua joerei eta teknologia berriei buruzko informaziora.
- Lehenasuna foro eta ekitaldi teknologikoetan parte hartzeko.
- Solaskide bakar baten izendapena zentro eta enpresaren arteko harremanetarako.

03. TALENTUAREN TRANSFERENTZIA

Gure zentro teknologikoan trebatutako langileak kontratatzeko lehenasuna:

1. **Planifikatutako transferentziaren** modalitatean (ikerlari juniorren kontratazioa, Enpresa Kolaboratzaileentzako gakoak diren teknologietan prestakuntza, eta transferentzia epealdi jakin baten amaieran), edo
2. **Planifikatu gabeko transferentzia gisa**, IDEKOn prestakuntza-etapa betetzen duten pertsona (bekak, gradu-amaierako proiektuak, master-amaierako proiektuak, etab.)

02. BALIOA EMATEN DUEN MARKA

- IDEKO markaren irudia erabili ahal izateko aukera azoka, foro eta beste ekitaldietan, ingurune teknologikoetan eta industrialetan zure ikusgarritasuna bultzatzeko tresna moduan.
- Abangoardiako instalazioen erabilera: azken belaunaldiko ekipamenduez hornituta dauden laborategiak, tailerrak eta esperimentazio espazioak erabiltzeko aukera.
- Bilerak eta batzarrak egiteko aretoak erabiltzeko aukera, edo zentroaren hall-a, show-room gisa, ekitaldiak ospatzeko.
- Harrera zure bezeroen bisitei.

04. FINANTZAZIO ERRAZTASUNAK

- Lehenasuna gure teknologia transferentzia proposamenetan parte hartzeko, eta I+G+b proiektuentzat finantzazio publikoa bilatzeko laguntza.
- Baldintza bereziak Administrazioak sustatutako I+G+b proiektuen proposamenen tramitazioetan.

